

**2009ko UZTAILAREN 21ean LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO EZ-OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2009ko uztailaren 21ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 13.00 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Karlos Irazu Muñoa  
Iñigo Aginalde Lertxundi  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak tartekaturiko berraztertze errekurtsoren azterketa, Larraulgo Plan orokorra idazteko baldintza administratibo eta teknikoen onespena eta lizitazioaren haseraren kontra, hala bada.**
2. **Larraulgo Plan Orokorra idazteko baldintza administratibo eta teknikoen onespena eta lizitazioaren hasiera, hala bada.**

.../...

**LEHENENGO PUNTUA**

***EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALAK TARTEKATURIKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOAREN AZTERKETA, LARRAULGO PLAN OROKORRA IDAZTEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ONESPENA ETA LIZITAZIOAREN HASERAREN KONTRA, HALA BADA.***

Ikusirik 2009ko uztailaren 9an, Jose Ignacio Otermin Garmendia prokuradoreak, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren izenean tartekaturiko berraztertze errekurtsoa, non Larraulgo Plan Orokorra idazteko 2009ko uztailaren 1ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (121 zenbakiduna) argitaratutako lizitazioaren hasera eta bitartez

onesturiko baldintza administratibo eta teknikoen onespina baliogabetu ditzagun eskatzen duen, aurkezturiko alegazioetan duelarik bere funtsa, hau da:

- Esleipen irizpidetzat ezin delako kontutan hartu esperientzia.
- Kontratazio mahaiaren osakera, legeak dioela betetzen ez duelako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (121 zenbakiduna), 2009ko uztailaren 1ean argitaratutako Larraulgo herria antolatzeko Plan Orokorra idazteko kontratazioaren lizitazioaren aurka tartekaturiko berraztertze helegitea bere osotasunean onestu. Ondorioz aipaturiko deialdia bertan behera gelditzen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialari ematea.

#### **BIGARREN PUNTUA**

#### **LARRAULGO PLAN OROKORRA IDAZTEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ONESPENA ETA LIZITAZIOAREN HASIERA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Plan Orokorra berria egin behar dela, horretarako, hau da, Plan Orokorraren idazketa egiteko baldintza administratibo eta teknikoak prestatu zirela eta Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu zela bere lizitazioa (121zenbakia), 2009ko uztailaren 1ean.

Ikusirik Euskal Herriko Elkargo Ofizialak berraztertze helegite bat tartekatu zuela Larraulgo Plan Orokorra egiteko baldintza administratibo eta teknikoen onespeneren aurka eta lizitazioaren haseraren aurka.

Ikusirik Udalbatza honek, bere osotasunean onestu duela Euskal Herriko Elkargo Ofizialak tartekaturiko berraztertze helegitean datozen arrazoiak, bertan behera utzirik aipaturiko baldintza administratibo eta teknikoak eta lizitazioa.

Ikusirik Larraulgo Udalak prestatu dituela Larraulgo Plan Orokorra idazteko baldintza administratibo eta tekniko berriak, Euskal Herriko Elkargo Ofizialaren oniritziarekin.

Ikusirik Larraulgo Plan orokorra idazteko kontratuaren esleipena, prozedura negoziatuaz egingo dela publikotasunarekin, aurrekontua 104.000,00 eurotako delako (BEZ barne).

Ikusirik 2009ekitaldiko aurrekontuetan 643.120.00.01 Ikerketa, azterketa eta proiektu partidan 5.473,75 euro aurrikusi direla, ez delarik nahikoa Larraulgo Plan Orokorra idazteko dagokion Kontratu esleipena egiteko, nahiz eta aipaturiko gastua urte-anitzetako izan. Beraz Idazkari-kontuhartzaile andreak guzti hau kontutan izanik batzarkideei dagokion legez kontrako ohartarazpena egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Plan Orokorra egiteko baldintza administratibo eta teknikoak onestea. Prozedura negoziatuaz eta publikidadekin egingo delarik, aurrikusitako diru kopurua 104.000,00 euro direlarik (BEZ barne).

BIGARRENA: Larraulgo Plan Orokorra idazteko kontratuaren esleipena gauzatzeko dagokion lizitazioaren hasiera onestu.

HIRUGARRENA: Larraulgo Plan Orokorra idazteko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Larraulgo web orrialdean.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 13.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA